

# Agustin Azkaratek 2021eko Eusko Ikaskuntza Saria jaso du Katedralean

Azaroaren 9an, Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa 2021 Sariak emateko ekitaldia egin zen Santa Maria Katedralean. Sari horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Humanitateen, Kulturaren, Arteen eta Gizarte Zientzien arloan egindako ikerketa- eta dibulgazio-lana aintzatesten dute. Katedralaren zaharberritzearekin lotura estua duen Agustin Azkaratek jaso du aurtengo saria.

Historian doktorea eta Euskal Herriko Unibertsitatean Arkeologian katedraduna, Agustin Azkaratek Arkeologiaren eta Ondarearen alorrean egindako ikerketa eta dibulgazio ibilbidea aintzatetsi da sari honekin. Gainera, saria bera inspiratzen duen toki batean jaso du, Zaharberritze Integratuko Plan Zuzentzaileagatik 2002ko Europa Nostra saria jaso zuen Santa Maria Katedralean. Bera izan zen Plan horren erredaktoreetako bat.

Ana Urkiza Eusko Ikaskuntzako presidentek, Txomin Garcia Laboral Kutxako presidentek, Maialen Olabe Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko presidentek eta Eva Ferreira Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak osatu dute Eusko Ikaskuntza Sariaren epaimahaia.

Bestalde, 35 urtetik beherako ikertzaileen eta sortzaileen lanari zuzendutako Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa saria, Ane Zulaikari eman zaio, XX. mendearen bigarren erdian euskal emakumeak itsoarekin zuen harremanean zentratutako ikus-entzunezko "Emakumeak Blai" proiektuarengatik.



## Eskolako bisitak itzuli dira

Santa Maria Katedrala Fundazioak 2021/2022 ikasturte berriko egindako dibulgazio-jardura garrantzitsuenetako bat berreskuratu du: Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuko Hezkuntza Programen Unitatearekin elkarlanean antolatutako eskola-bisitak.

Ekimen honen helburua eskolako adinean dauden haurrei hiriko ondarearen gozamenen eta ezagutzen inplikatzearen garrantzia zuzenean helaraztea da. Izan ere, bisita horien bidez, Fundazioak Gasteizko historia eta ondarea hurbiltzen dizkie, ikasketa ludikoaren ikuspegitik eta adin guztietara egokituta. Emaitza gisa, tenpluaren jatorria, arkeologia, artea eta arkitektura modu atsegina eta dibertigarrian deskribitzen dituzte.





**Aitzina Folk 2021 en hasiera ikusgarria.** Joan den urriaren 29an, Santa Maria katedralak hasiera eman zion Aitzina Folk Jaialdiari, Taracea taldearen kontzertuarekin. Taldeak Donejakue Bidean zehar tradizioaren eta orainaren arteko ibilbide musikal berezia egitea proposatu zien bertaratutakoei, jazzaren inprobisazioa eta munduko erritmo desberdinak ardatz hartuta.

## Umbra Light Festivalek Santa Maria argitu zuen

Santa Maria Katedrala argi-instalazio ikaragarria bihurtu zen azaroaren 12tik 14ra bitartean egin zen Umbra Light Festivalen bigarren edizioan.

Katedrala, argiztapenaren bidez adierazpen artistiko bihurtutako hiriko hainbat espazio miresteko aukera herritarrei hurbiltzeko jaialdiak proposatutako ibilbidearen zati bat izan zen. Katedrala proposamen horren parte den bigarren

aldia izan da. Proposamena Gasteizko erdigune historikoan gauzatu da, "zuk distira egitea nahi dugu" lelopean. Lehenengo aldiaren, argi-instalazioa kriptan egon zen; aurten, berriz, katedralaren erdiko nabea argiztatu da.

Umbra Light Festival Vitoria-Gasteiz ARGIA 3 Kultur Elkarrekin antolatzen du eta jendea hiriko argi-artearen munduan sartzea du helburu.



## Ikasketa-bisita Zaharberitze Masterreko ikasleentzako

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Ondare Eraikiaren eta Eraikinen Birgaitze, Zaharberitze eta Kudeaketa Integraleko Masterreko ikasleak Arabako hiriburura joan ziren, Santa Mariara ikasketa-bisita bat egiteko. Leandro Camara Fundazioko arkitektoak eta Agustin Azkarate EHUko Arkeologia katedradunak artatu zituzten ikasleak.

Master honen helburua ikasleak ikerketa eta berrikuntza bideratzeko profesional gisa prestatzea da, eraikitako ondarea lehenertzeko proiektu integralen garapenean eta ingurunean balioa emateko. Horrela, San Maria Katedrala Fundazioak Katedrala birgaitzeko eta ondarea berreskuratzeko proiektua bertatik bertara ezagutzeko aukera eman zien bertaratutakoei.



## Aterpetxea, errendimendu osoan

Covid-19tik sortutako murrizketak amaitu zirenetik, aterpetxea bere jarduerari berriro ekiten ari zaio errendimendu osoan. Joan den urrian, hamabost eguneko truke-egonaldi batera Gasteizera etorri zen Europako nazioarteko lehen taldea hartu zuen. Era berean, Estatuko hainbat tokitako ikasle-taldeei eta hiriaz zein lurraldeaz gozatzera datozen eta desgaitasuna duten pertsona-taldeei eman die ostatu. Esan behar da datozen egunei begira erreserbak nabarmen handitzen ari direla.